

Iragana defendatzean



**NEREA IBARZABAL
SALEGI**
BERTSOLARIA

Haurtzaroa “aberri emozional txikia” dela idatzi zuen Los Chikos del Maíz-eko Nega abeslariak; zahartu ahala, gure umetako zein gaztetako bizipenak idealizatzeke joera hartzen dugula esan nahi zuen. Haiek bai kantuak, ordukoak bai parranda sanoak, lehengoa bai benetako bizitza, benetako mundua, zeinetan ne nintzen protagonista, gazte eta eder. Zernahi defendatzerira iristen gara aberri lurrin hura salbu mantentzearen, *comecocos*-etik hasi eta domeka goizetan ikusten genituen marrazki bizidunetarraino. Berdin dio kontsumitzen edo egi-ten genuenaren kalitate objektiboa zein zen; aldakaitz mantendu nahi izango dugu, utzi genuen bezalaxe, horixe delako hara itzultzeke dagoen modu bakarra. Hurrengo belaunaldiei beti faltako zaie zerbait autentiko izateko.

Ohiko prozesua izango da beharbada, erresistentzia instintibo bat. Denok nahi ditugu heldulekuak, erritualak, nostalgia, gauzen errepikapena, seguru sentiaraziko gaituzten etxeak. Kontua da ea ba ote dakigun zer ari garen defendatzen gure aberri emozionalak defendatzen

Jende heldua da
kexatu dena, noski,
bere haurtzaro zuria
arriskuan ikusi duena.
Inoiz ez omen da
sirenatxo beltzik egon,
are gutxiago elfo beltzik

ditugunean. Ea gai garen eta ea prest gauden aberri hori sostengatzen duten ideologiak ikusteko eta zalantzan jartzeko.

Adibidez, aldaketa bat “behartua” edo “artifiziala” dela iruditzen bazaigu, guretzat “naturala” zer eta zergatik den azaltzerira ausartu beharko ginateke. Demagun, emakumeen parte hartzea plaza publikoan. Artifiziala da emakumez osatutako ekimen kultural bat zure herriko

jaietan, kupo usaina hartzen diozu. Naturala da 50 urtean gizonez osatutako egitarauak antolatu izana, jakinekoa baita haiek ez datozela gizonak izateagatik, izaki argitsu eta puruak direlako baizik. “Naturala” esaten duzu, “ni eta nire modukoak” esatea gehitxo delako.

Orain ikus-entzunezko produkzio pare batekin piztu da enegarren eztabaida. *Boterearen eraztunak* eta *Sirenatxoa*. Ustez *Eraztunen Jauna*-ren eta Disneyren zale sutsuak zirenak goragoraka hasi dira protagonista paperetan aktore beltzak jarri dituztelako. Jende heldua da kexatu dena, noski, bere haurtzaro zuria arriskuan ikusi duena. Inoiz ez omen da sirenatxo beltzik egon, are gutxiago elfo beltzik. Hori ez ei da naturala. Fantasiatzko kontakizunetan ere pertsonaia zintzo eta irabazle guztiak zuriak izatea omen da naturala, horrelaxe jaso genuelako umetan, Jesukristo eta Kleopatra ere zurbilak eta begi-urdirak diren moduan, guri eta gure aberrikide emozional arrazistei hala komeni zai-gulako. Pentsa dezagun iraganaren aitzakiapen zer babestu eta zer baztertu nahi dugun benetan. ●

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



ARGIA

GOTAIN- IRABARNE

📅 Urriak 1, larunbata, 17:00
📍 Herriko Gela

GASTEIZ

📅 Urriak 2, igandea, 17:00
📍 Europa Biltzar Jauregiko
Maria de Maeztu entzunaretoa



LEHENENGO FASEA